

## “Estos muros” dokumentalak lortu du Memoria duten Irudiak bosgarren zikloaren publikoaren saria

1.400 ikusle baino gehiago izan dira Nafarroako Memoriaren Institutuak antolatutako ikus-entzunezkoen topaketan

Asteazkena, 2023ko Maiatzaren 3a



Ikus-entzunezkoaren irudia.

Alberto Pascualen ‘Estas Muros’ dokumentalak publikoaren saria lortu du Nafarroako Gobernuak Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiaren mendeko Nafarroako Memoriaren Institutuak antolatzen duen Memoria duten Irudiak ikus-entzunezko topaketaren V. edizioan. Rosa Brines dokumentalistaren ‘Los ángeles caídos. El fanatismo de los psiquiatras de Franco’ eta Xavier Villaverderen ‘María Casares. La mujer que vivió mil vidas’ lanek eskuratu dituzte bigarren eta hirugarren tokia.

(Albiste honi buruz gehiago jakin nahi baduzu, mesedez kontsulta ezazu gaztelaniazko bertsioa. Goiko nabigazio barra gorrian alda dezakezu hizkuntza).